

# ETSIAIKEROAK



EtsaiakEroak edo Etsaiakeroak edo Etsaiak Eroak? Modu desberdinetara idatziko dute talde berriaren izena. Jarraitzaile sutsuena, oraingoz, abeslaria bera da, Aitor Ibarra, Auo "Etsaiak"; hots, Etsaiak taldeko abeslaria orain erotuta. Zeharkaldian lagun zaharrak eta berriagoak izango ditu alboan. Talde indartsua batzea lortu du Auok eta pozik dago emaitzarekin, eta batez ere, zorutzen soinuaren trinkotasunarekin.

EtsiakEroak taldearen "Naufagoak" diskoaren zatirik handienak Basauriko Luberrri estudioetan grabatu ditu Txus Lozanok, eta gainerakoa Mutrikuko AME estudioetan Axular Arizmendik grabatu du. Aitor Ariñok nahasketak eta masterizazioa egin ditu Berrizko Lorentzo Records estudioan. Tokik perkusioa jo du. Txortx Etxebarrieta soinu teknikariaren laguntza ere jaso du taldeak.

EtsaiakEroak taldearen "Naufagoak" lehen diskoak bost abesti ditu. Bateria eta baxuaren oinarri erritmiko trinkoen gainean erakitako gitarra zorrotzen abiadura biziko soinua da EtsaiakEroak taldearen osagai naturala, eltze horretatik elikatu baita urteetan Auo abeslariaren musika ibilbidea. Auoren estrategia da alboan ahalik eta musikari emankor, trebe eta laguntzaileenak izatea proiektuaren defentsa bikaina egiteko agertokietan. Hard corea, punka eta metal azkarrak arrastoa utziko dute naufragoa iristeko entzulearengana. EtsaiakEroak taldearen ezaugarria jendea pogoan jartzea da, jendea mugiaraztea eurek agertokian disfrutatzen duten bitartean.

## NAUFRAGOAK

Diskoa gure oinarri eta printzipioen adierazpena da. Bost kantuak zuzenak dira, bortitzak, eta berrikuntzaz beteak datoz. Euskal Herriko punk, hard core eta metalaren nahasketa da. "Naufagoak" kantuak argi dio nortzuk garen, nondik gatozen eta norantz goazen. Aurreko hamarkadetatik bizirik geratzen garen naufragoa gara baina oraindik zutik diraugu. Gure jatorriari eta punkari omenaldia egiten diogu Eskorbuto, La Polla Records, RIP, Etsaiak aipatuta. Perkusioa, skratxa eta samplerren laguntza erabiltzea erabaki dugu.

## LOCOS POR EL RUIDO

Zergatik gaude erotuak? Musika eta zarategatik izango da? Dena den, zoramen osasuntsua, bai. Musika bortitzak eramaten gaitu indarrera, amets egitera, jarraitzeko ilusioa ez galtzera, eta noski, salatu nahi dugu ez dagoela adierazpen askatasunik. Errezeta bizirik eta gazte irauteko erritmo azkarra mantentzea da.

## LIBRE IZAN ARTE

Gure helburu nagusia aske bizitzea da, aske jaio ginen baina orain askatasun bidea norberarengatik hasten da. Ez dugu preso egon nahi geure buruaren lau hormetan. Inposizioak gaintitu, kantuak apurtu.

## FUNKING BASTARDS

Kexa zuzena eta gogorra. Politikoei eta beraien babesleei kritika... haiek denak direlako ustelkeriaren errudunak. Eta langabetuak, edo sufritzen ari den herriari onarpena ematea. Guzti hau punk, hard core fresko eta berritzaile ukituekin. Gogora ekartzen dizkit ameriko puntako taldeak: NOFX, The Offspring eta abar. Sekulako gitarra punteok daude.

## BATUKADAN

Kantu herrikoia, alaia baina, batez ere, kañeroa. Batukada herriaren taupada da eta Axularrek lortu du perkusio erritmoaren bitartez dantzagarritasuna, gero riff azkarrekin nahastu dugu. Astindu zentzumenak eta parrandan edo txosnetan zaudela dantzatzeko egindakoa abestia da. Tokiren laguntzarekin merezi zuen indarra lortu du kantuak eta modu horretan borobildu diskoaren bukaera.

Nicola: bateria

Dann: gitarra eta koruak

Auo: ahotsa

Axular: perkusioa

Txus: gitarra eta koruak

Jorge: baxua

ritxi aizpuru + etsaiakeroak (2016ko azaroaren 28a)